

## SIMON

## Gidoia

365 hitz



Arreba bat zeukan Simonek eta Fita esaten zion ezizenez.

Arratsaldero, eskolatik aterata, logela berean jolasten zuten anai-arrebek oso gustura, baina zirika egiten zion Simonek beti arrebari. Fitak orraztu nahi bazuen panpinaren ilea, Simonek harrotu eta nahasi egiten zion. Fitak soka-saltoan jolastu nahi bazuen, Simonek endredatu egiten zion eta denbora pasa behar izaten zuen arreba gaixoak korapiloak askatzen eta korapiloak askatzen.

Aspaldi zeukan Fitak, amonak oparituta, panpina handi-handia. Hoberik aurkitu ez eta Erraldoi izena eman zion.

Buruhandia eta ia-ia Simon bezain handia zen. Fitak gehien maite zuen panpina zen Erraldoi.

Egun batez, Fita etxean ez zegoela, Simonek Erraldoi hartu eta indio eta bakeroetan jolasten hasi zen. Airean erabili, zapaldu, ostikoka eta ukabilka jo, ohe eta besaulki gainean saltoka ibili... denetarik egin zion. Hala astindu eta kolpeak hartuta, josturak urratu eta barruko guztia galdu zuen panpinak. Zabor-zati piloa zegoen bazterretan!



Fita etxeratu zenean, zarpail eginda aurkitu zuen Erraldoi. Simonek ez omen zekien gertatukoaren berririk ere: serio-serio esan zion arrebari.

Fitak, haserre, panpina jaso eta alde egin zuen.

Egun batzuk geroago, arratsalde batez Simon plastikozko soldadutxoekin jolasean ari zen, borrokan. Bat-batean hotzikara eragin zion ahots bat entzun zuen bere atzean:

- Soldaduek ez dute borrokarik nahi. Adiskideak dira! Beraz... alde hemendik!

Simonek burua bueltatu eta Erraldoi ikusi zuen aulki batean.

“Panpinek ez dute hitzik egiten” pentsatu zuen, baina bada-ezpada ere, gelatik atera eta telebista ikustera joan zen.

Isilik eta pentsakor eman zuen arratsalde osoa, hain pentsakor non eskolara joatea ere ahaztu omen zitzaion. Gertatutakoa azaldu zuenean, jakina, inork ez zion sinestu.

Biharamunean, logelan sartu eta serio-serio gelditu zitzaion Erraldoiri begira, eta handik pixka batera, trenaz hasi zen jolasean.

- Trenak ez du jolastu nahi. Zoaz eskolako lanak egitera!- esan zuen berriz Erraldoik.

Simon, izututa, eskolako lanak egitera joan zen tutik ere esan gabe.

Denboraldi batean honelako gauzak jazo ziren. Nekatzen hasi zen Simon egun batean panpinak gozokiak eskatzen baitzizkion, beste batean igandeko dirua, beste



batean marrazki bizidunak ez ikusteko. Egoera hari bukaera eman beharra zegoen.

Gelan sartu eta berealdiko kaskarrekoa eman zion Erraldoiri erratzaren kirtenez.

- Kito! – esan zuen Simonek.

Harrez geroztik Erraldoik ez zuen berriz hitzik egin.

Harritzekoa izan zen, ordea, Fitak aste betez edo buruan izandako koskorra. Inork ezin izan zuen esan nola sortu zitzaion, eta berak ere ez zuen aipatu.

*Simon, Simon*, Emilio Sanjuán (moldatuta)